

ATEGORRIETA PLAZA

EUS

Questions Responses **89**

89 responses



Accepting responses


Summary

Question

Individual

Zerk lotzen zaitu Ategorrietarekin?


87 responses



- Inguruan bizi naiz
- Inguruan ikasten dut edo egiten dut lan
- Ekipamenduren baten erabiltzailea naiz, zuzenean edo zeharka (eskola, egoitza...)
- Ategorrietatik pasatzen naiz maiz
- Beste

Otik 5era, zer iruditu zaizu proposamena?

86 responses



CAS

Questions Responses **30**

30 responses



Accepting responses

Summary


Question

Individual

¿Qué te une a Ategorrieta?




27 responses



- Vivo en las inmediaciones
- Trabajo/estudio en las inmediaciones
- Soy persona usuaria, directa o indirecta, de algún equipamiento (escuela, residencia, etc.)
- Paso a menudo por Ategorrieta
- Otros motivos

De 0 a 5, ¿qué te ha parecido la propuesta?

27 responses



Zein da, zure ustez, Ategorrietaren behar nagusia?

73 responses

-

Errepide gutxiago (soinu gehiegi) eta auzoko bizitza gehiago

Handik pasatzen den trafikoa murriztea

Trafikoa murriztea

Bizilagunak elkartzeko eremua eta bidegorriaren lotura egokia

Pertsonen neurrirako ezaugarriak berreskuratzea, ibilgailuenari lehenestearen orde

Bizitza behar du, plazak, komertzioak, tabernak...

Trafikoa, habiadura, soinua, oinez semaforo asko ta arrisku asko, bizikletan mila buelta ta arrisku.... Pertsonak espazioa berreskuratzea eta oinez, naiz bizikletaz zentru ta hondartzarekin konektatzea

Proposamenen zehazten den bezala, oinezko eta bizikleten ginkana.

segurtasunez ibiltzea

Motordun ibilgailuek duten espazioa gutxitzea eta trafikoa murriztea oinezko eta bizikletentzako espazioa irabaziz.

Trafikoa murriztea eta moteltea. Etxeartean doan 4 erreileko bidea bulebarizatu beharra dago, Mirakruz gainetik hasita (hobe Herrerako geltokitik, Elozegi etorbide osoa)

Bidegorri sarea hobetzea Jose Elozegi alkatea hiribidean eta Ategorrietako hiribidean bidegorria jarriaz Mirakruzetik jarraituko lukeena. Trafikoa lasaitzea eta Ategorrieta hiribidean oinezkoentzat pasabideak semaforoekin puntu ezberdinetan jartzea Jai Alaitik hasita.

Auzo izaera eta bizitza, ondo zaindutako berdegune atsegin bat.

Bizia erreuperatzea: dendak, umeen jolaslekuak, eserlekuak...

Oinezkoentzako espazioa sortzea eta auzo bizitza sustatuko duen espazio komunitarioa eraiki.

Belardiak, oinezkoentzat espazioa, dendak, tabernak...

Trafikoa murriztea eta oinezkoei erraztasunak ematea. Komertzio txikia sustatzea, Parking plazak autoentzat lurazpian (elektrikoak kargatzeko zonaldeak barne) , parkinga txirrintentzat, frontoi inguruaren birmoldaketa (mendebaldetik sarrera erraztu, lurra egokitu...

Kotxeak murriztu eta berdeguneak indartzea

Aisialdirako espazioak, trafiko murrizketa, instalazio zaharren berrikuntza, bizitza falta zaio taberna, komertzio eta terrazarik Gabe.

Trafiko murrizketa

Plaza haundi bat

Trafikoa murriztea gure txikien eta helduen seguritatea bermatzeko, eta kutsadura mailak murrizteko. Era Berean, auzoari bizitza ematea; hau da, komertzioak eta tabernaren bat izatea non auzoaz disfrutatzeko aukera izan dezagun.

Trafikoaren inpaktoa gutxitzea

Hauzo bezela bizitzea, ez bakarrik lo hauzo bezela.

Hostalaritza eta Uliarekin edo naturarekin erlazionatutako zentro bat

Auzotik igarotzen diren autoen ,txirrinu eta peatonen elkarbizitza obetzea

Bertakoentzako aparkalekuak

Oinezjoen bizi eremua hobetu. Gertujo merkataritza sustatu.

Trafiko bolumena jeitsi

Trafikoa murriztea, auzo bizitza bultzatzea, oraintxe duen trafiko erraldoaik ez du bertan lasai geratzera gonbidatzen.

Auzoa elkartzea eta bere bizitza bultzatzea

Bizilagunentzat espazioa errekueratzea

Ordenatzea bizikletaren eta oinezkoren alde eta eta garrantzi historikoa azpimarratzea

Lasaitasuna

Auzoa erdibitzen duen errepidearen trafikoa mugatzea

auzo giroa lortzea. Aparkalekuak

Espazio berde gehiago ets trafiko gutxiago

Bidegorri txukun bat. Oinezkoentzako toki gehiago.

Oinezko eta bizikleteei lehentasun gehiago ematea

Trafikoa murriztea eta errepideen orde, zonalde zabalak egotea, terrazaren bat ipini ahal izateko

Komertzioa eta bizia falta zaio, pasoko zona bat da oraintxe bertan. Lanetik kotxez ziztu bizian pasa, umeak eskolatik jaso eta ez dago inguruan geratzera animatzen zaituen ezer erakargaririk (parke txukun, tabernak, zona lasaiak...)

Oinezkoak ibilgailuen gainetik jartzea

Segurtasuna

Trafikoa murriztea edo, behintzat, dagoena, "izkutatzea"

Aipatu den bezala, hainbat eskola eta errekurtsio inguruan izanda, segurtasun eza nabari da, adibidez, umeak ikastolatik irtetzen direnean errepidez inguratuak bai daude. Horretaz gain, auzoan adineko persona ugari bizi dira ere, eta beraien egunerokotasuna erreztu beharko lukete. Auzoan behar guztiak asetuz. Bai basikoak, fisikoak, eta sozialak.

Kamioak, hau da N1 errepide zaharrak, sortzen duen etena/banaketa desegitea.

Lekuak jendearentzat, dendak, tabernak....

Trafikoa baretu eta murriztea / Espazio berdea irabazi / Topaleku bilakatu

Auzo bizitza, lasaitasuna bai bizilagun zein egoitza desberdinen erabiltzaileentzat.

Trafikoa bigarren plano batera igarotzea eta pertsonen ongizatea bermatzea.

Umeen seguritatea bermatzea

Auzoa berpiztu

Trafikoa berrantolatzea, oinezkoentzat atseginagoa izateko eta zarata murrizteko.

Auzo bizitza sortzea, espazioak elkartuz. Zementua murriztea eta berdeagoa izatea.

Trafikoa gutxitzea eta komertzio txikia, tabernak terrazakin eta plaza eta jendearentzako zona eroso eta seguruak izatea

Espazio publiko gehiago. Auzoko bizitza eta komertzioa sustatzeko.

Gune seguruak izatea

Kotxeek orain duten lehentasuna pertsonak izatea

Kotxe kutsadura zaratatsua ekidin

Denontzako espazio erabilgarri bihurtzea.

egungo karretarak auzoa guztiz zatitzen/hiltzen du

Auzoak bat egiteko eremu ireki eta kohesionatu bat behar du. Gaur egun errepidearengatik zatituta dago eta honek ez du laguntzen eguneroko bizitza bertan egitera. Auzoak eskola ugari, frontoia, helduentzako egoitzak... ditu, baina guzti hauek isolatuta daude, errepideengaitik inguratuta. Komunitatea sortzeko plaza handi bat beharrezkoa da, eta hurrek jolasteko parke txukun bat.

Oinezkoentzat leku seguruak izatea

kotxe zirkulazioa murriztea eta bai bizikleta eta baita ibiltzen dijoazentzat erabilera aproposago bat edukitzea

Oinezkoentzako espazioa. Aisirako espazioa. Umeentzako lekuak

Trafiko gutxiago. Bidegorria. Txikiek lasai ibili eta egoteko leku gehiago. Zarata gutxiago.

Oinezkoak eta bide gorriak lehentasuna izatea trafikoarekiko, eremu seguruago bat bihurtu dadin. bi

Solucionar el paso de los automobiles, muchos cruces y altas velocidades (MUCHOS ATROPELLLOS). El parking en la zona es NULO.

Oinezkoen segurtasuna

Ibilgailuen jariora gutxitu eta oinezkoentzat ingurua berreskuratu

trafikoa eta soinua, umeekin noanean ez ditugu entzuten. zona trafiko haundikoa da eta hirian egonda ez zait ondo iruditzen

trafikoa kentzea eta plaza eder bat egitea

¿Cuál es, para ti, la principal necesidad de Ategorrieta?

23 responses

-

Calmar tráfico para disminuir ruido y contaminación

Comercio y espacio

Más aceras y más anchas y que no sea una zona de paso

tener vida de barrio

Integrar y humanizar el entorno

Buenas comunicaciones y iluminación para que sea totalmente segura

Quitar la cantidad de tráfico que tenemos en la zona .

Aparcamiento zona residentes y zona OTA.

Reducir el tráfico, aumentar la seguridad y ganar espacio para el esparcimiento.

Unir las dos partes del barrio que separa la carretera y calmar el tráfico

Reducir el tráfico, crear zonas de descanso-ocio, impulsar el mercado local, abrir algún bar, etc

conciencia de barrio

Hacer que la zona sea más amable y tranquila

Modernización y seguridad

Creo que necesita que vayan a recoger a los niños sin coche

eliminar en la medida de los posible el trafico hay mucho niño alrededor y mucho peligro

La Carretera general es la que como bien decís, condiciona a todo el Barrio, ¿ Todo el tráfico que pasa es necesario, tiene necesidad de pasar por ese punto? La Ciudad, No sé, si está mal organizada o que nuestras entradas a la ciudad no son las adecuadas.

La humanización de las relaciones que confluyen en dicho espacio.

Recuperar la cohesión de barrio en parte limitada por la barrera urbanística y arquitectónica que supone la carretera

comercio y aparcamiento

Espacio para las personas

Mejorar el barrio

Generar una nueva centralidad para la zona

Utz iezaguzu zure hausnarketa jarraian, mesedez:

46 responses

-

Plazaren proposamena oso egokia da auzoa erakargarriagoa eta seguruagoa egiteko. Horrez gain, soinu kutsadura txikitzeak lasaitasun handia ekarriko liguke auzokideoi.

Oso proposamen interesgarria iruditu zait. Eremuak izugarri irabaziko lukeela iruditzen zait

Ez dago auzoan (Ategorrieta-Ulia) plazarik, bertan harreman sozialak sortzeko. Gainera, ume asko ibiltzen da Ategorrietan, eskola egunetan batez ere, eta arriskutua ere izan daiteke orain dagoen trafikoa. Zurriola ikastola gaur egun, errotonda baten barruan dagoela esan daiteke, parean beste bat duelarik. Oso ideia ona iruditzen zait proposamena, naiz eta zailtasunak izango diren dagoen trafiko handia dela eta. Bidegorriaren lotura ere ridikuloa da eta konpondu beharra dago.

Proposamenean asmatu duzuela iruditzen zait. Eskerrik asko ta zorte on

Askok gustatu zait ideia baina gaur egun zona honek jasotzen duen trafikoko dentsitate guztia zer nola birruntolatu zen ez dut argi ikusten eta trafikoa lurperatzeak kostu handia izango luke. Oso interesgarria izango litzateke ere Renfeko tren estali ta gainetik hiri konektatzen duen pasabide peatonala egitea. Mila esker hiria hobetu dezaketen ideia berriak sortzeagatik ta partekatzeagatik

Bide Zaharretik ibiltzea oso arriskutsua da ordu batzuetan. Autobusak, kotxeak, txirrinduak eta oinezkoak, batez ere azken biak, ezin pasa espaloietik eta gainera espaloiak babesik gabeak, bordillorik ez dagoelako. Segurtasun falta hori pilatzen da Ate inguruan, ume asko igaro behar dutelako alde batetik bestera, ikastolak daudelako

Zalantza eragiten dit Mirakruz gainera joango litzatekeen bidegorriak. Ategorrietara jaisteko egokia litzateke, baina hurrek edo adinekoek igotzeko maldatsuegia da. Hori bai, txirrinda elektrikoek erabiltzeko edo kirolarientzako egokia litzateke.

Plazaren ideia oso interesgarria iruditu zait. Taberna, terraza eta konbenientzizko denda txikiekin. Proiektuarentzat lagungarria izan daiteke Zubiaurre hiribidea ibilgailuentzat zentzu bakarrekoa bihurtzea, kale hau baita lasaituko litzateke eta trafiko baztuk kale hontatik bideratu daitezke, autibidea hartzeko edo autobideatik hirian sartzeko.

Ategorrieta ingurua estrategikoki oso ondo kokatuta dago: Donostira sartzeko eta Donostitik irteteko bi aukerak elkartzen dira bertan, auzo ezberdinek inguratzen dute (Intxaurre, Egia, Gros, Ulia, Bidebieta), autobus askok dute geltokia bertan... Ondorioz, ibilgailu motordunek presentzia handia dute. Eskola-orduetan eta astegunetan jendea ibiltzen da (pilaketak sortzen dira sarrera eta irteera orduetan), baina eskola orduetatik kanpo jende gutxi ikusten da auzoan bertan (pasan doazen oinezkoak gehien bat). Farmazia eta okindegiak mugimendu pixka bat izten dute, baina ez gehiegi. Inguruan komertzio txiki gehiago jartzeak eta oinezkoentzako z ein auzotarrentzako bide/zabalgune/plaza atsegin bat eraikitzeak auzoari bizitza emango liokeela uste dut.

Plaza berritu arren, ibilgailu eta txirrinduantzako "paso" bat izango da, eta erronka nagusia jendea bertan geratzea izango da, ez bakarrik handik pasatzea

Auzoa trafiko arteria batek erdibitu du, espazio ireki zabala behar da, auzo-komunitatea sortuko duena. Dauden ekipamentuak zaindu eta eraberritu, frontoia eta bere ingurua adibidez. Berdeguneak behar dira.

Ategorrieta pasozko toki bihurtu da, bertako bizilagunentzat ez da eroso, denda gutxi, taberna gutxi...trafiko ikaragarria...umeekin ibiltzeko ere, ez da eroso. Pena handia da, Ategorrietak bere garaian bizitza handia zuelako, jaiak eta guzti!! Ez naiz Ategorrietan bizi, baina nire txikitako eskola han zegoen, unibertsitatea kasualidadez, ere bai eta orain Ategorrietan lan egiten dut. Maite dut Ategorrieta. Zuen proiektua asko gustatu zait, ea denon artean lortzen dugun. Mila esker!

Altuera bajuko eraikinak zehazki zer dira? Zertarako erabiliko lirateke? Zelaiak izate ere atsegina da... Trafikoa murrizteko bestelako planak sustatu behar dira

Donostiako auzo zoragarri honek ez du disfrutatzeko aukerarik ematen. Horrelako plaza batek bizitza emango lioke auzoari, zerbitzuak emango lizkioke eta trafikoa kontrolatuz zarata murriztuko litzateke.

Aisialdirako espazioak behar ditugu

Bat nator zuen proposamenarekin, eta ilusio handia eman dit zuen proiektua ikusteak.

Idea oso interesgarria ta polita.. Egia da ibilgailuen tránsitoa aldatzearekin Donostiaren antzinako sarrera gorria indartu eta karakterra emango liokeela, baita Uliarako sarrera moduan ere.

Preoiktuak gure bizi kalitatea asko obetuko du

Idea ederra.

Auzoak bultzatzea, komertzio txikia, herri giroa eta kultura bultzatzea da, eta zer esanik ez kutsadura nabarmen etetea. Gainera garraio publikoa bultzatuko litzateke.

Idea ona oso... Asko irabaziko genuke inguruak eta bizilagunok

Eskerrik asko

Ikastetxe eta zerbitzu ugari eskaintzen dituen auzoa izan arren, espazio publiko gutxi dituen auzoa da. Etxe sail pribatu eta hesituak gailentzen dira eta komertzio gutxirekin lotarako auzune bihurtu da.

Donostian eraikuntzak egiteaz hitz egiten denean beldurra sortzen zait. Zer? zenbat? zein erabilpenekin? Babesekoak? Merkatu espekulatiboaren esku?

Hurrengo urtean Zurriola Ikastolako eraikuntza berriaren obra bukatu eta gero, 450 ume gehiago joan beharko dira egunero ikastolara.

Idea gustatu zait, bizia emango lioke zonalde horri, baina ez dakit bideragarria izan daitekeen grosera sartzen den trafiko guztiarekin. Nolabait trafikoa bideratu beharko litzateke plaza bat izateko, ez erdibitutako plaza bat.

Proiektu interesgarria iruditzen zait eta ea aurrera ateratzeko aukera dagoen.

Oso proiektu interesgarria da eta bultzatu beharrekoa.

Aisiarentzat lekuak, tabernak, umeak jolasteko lekuak...faltan botatzen det. Baita ere, bizilagunak kotxeak aparkatzeko lekua. Azken finean, Ategorrieta bihurtu da Grosetik aparkatzeko gune urbil bat. Ta guk, bizitza Grosen ein behar degu (plazak, dendak, tabernak...)

Auzoak lotarako guneak izan ezik egunerokotasunean eroso eta seguru bizi ahal izateko espazioak izan beharko luketela uste dut: aisialdirako eta biztanleriarentzako topaguneak dituen, natura guneak, etab. Honek bizitza ekarriko luke auzora, eta honekin batera komertzioa eta beste hainbeste baliabide. Beste auzoetan burutu diren peatonalizazioak dakartzan onurak behar dira Ategorrietan ere.

Berdegune asko izatea

Proiektu bikaina. Frontoia barne. Baina mesedez, ez ahaztu Lore Baratzak eta Txaparreneren arteko errepide-mugak zenbat kaltetzen dion Ategorrieta-Uliako auzoari.

Oso odeia ona iruditzen zait eta ea denon artean lortzen dugun aurrera eramatea

Zuen proposamena auzoak dituen beharrei erantzuten du eta auzokideen bizi kalitatea ikaragarri hobetuko luke, baita auzoan dauden zerbitzuen erabiltzaileena ere.

Proposamena ona iruditzen zait orokorrean, auzoak asko irabaziko du. Dena den, etzait oso garbi geratu nola berrantolatuko den motordun trafikoa. Berrantolatu bakarrik? Murrizteko aukerarik ba al dago, zarata, kutsadura... murrizteko aldi berean? Kontuan hartu da, pentsatzen det, inguruan Donostiarako sargune berria izango dela, eta horrek ere eragina izango duela zonaldeko trafikoan? Iruditzen zait marrazkiekin bakarrik ez dela guztiz azaltzen, planoren bat egotea ere eskertuko litzateke. Izan ere, garrantzitsua iruditzen zait horri denari buruzko informazio gehiago izatea, argiago ikusteko nola interaktuatuko duten kotxeek, pertsonak eta bizikletek. Proposamenak aipatzen duen hierarkia hori hobe azalduta egotea ondo legoke. Plaza kontzeptua neretzat da pertsonak lasai eta libre mugitzeko espazio bat. Baina espazio horretan zehar etengabe autobusak pasatzen badira, etzait hain segurua iruditzen, batez ere umeak tarteko badira. Jakin nahiko nuke erlazio horiek nola tratatu diren.

Haurren bizikleten, patineteen eta gurasoen bizikletetara heltzen diren gurdien estazionamendurako instalazio egokiak. Gurasoek eskolan haurrak uzteko estazionamendu probisionala.

Mesedez, ez ahaztu ategorrietako frontoia eta tinketea proiektuan, kirol/aisi arnagunea da eta. animo ete mila esker

Auzoak bat egiteko eremu ireki eta kohesionatu bat behar du. Gaur egun errepidearengatik zatituta dago eta honek ez du laguntzen eguneroko bizitza bertan egitera. Auzoak eskola ugari, frontoia, helduentzako egoitzak... ditu, baina guzti hauek isolatuta daude, errepideengaitik inguratuta. Komunitatea sortzeko plaza handi bat beharrezkoa da, eta haurrek jolasteko parke txukun bat. Bidegorriaren estruktura benetan arriskutsua da, semaforo eta bihurgune asko ditu. Ez da haurrentzako batere egokia. Trafikoa moldatu beharko litzateke, abiadura handian pasatzen dira kotxeak bertatik.

Proiektu interesgarria eta auzorako beharrezkoa

Ados nago

Proektua bere osotasunean asko gustatu zait. Trafikoak eremu kaotiko bat bihurtu du non oinezkoak eta bizikletak ahal duten moduan igaro behar duten. Gainera, abiadura handiz pasatzen dira kotxeak zein motorrak, istripu larriak egoteko arrisku handia egonik (berez suertatu dira). Gainera, egunero haur asko pasatzen dira bertatik 3 ikastola eraikin bait daude, justu adin txikikoenak hartzen dituenak (2-12 urte bitartekoak). Proposatzen den aldaketa mesede handia egingo lioke eremu honi.

Creo que el proyecto puede mejorar muchísimo una segura movilidad sobre todo de los que vivimos por los alrededores.

Ondo landutako proposamena iruditu zait

Komertzio txikiari indar gehiago eman, trafikoa lurperatu (soterrar) eta gainean oinezkoentzat espazioa egin, haur eta zaharren auzoa da eta ez dute disfrutatzekeo lekurik.

Déjanos, por favor, tus reflexiones a continuación:

17 responses

-

Interesante proyecto para hacer zonas más habitables para los ciudadanos
priorizar al peatón

Propuesta interesante ya que proporciona espacios adicionales, humaniza el entorno y proporciona una zona de esparcimiento y socialización muy necesarias para el barrio. Se trata de una zona compleja que incorpora, además de una concentración de personas de la ikastola, haurreskola y residencia de tercera edad, un tráfico importante por parte de los usuarios de estas instalaciones, movilidad desde y hacia Intxaurre, incluidas cocheras de Dbus, así como el tráfico adicional del futuro acceso a la variante en la zona de Polloe. Considero que habría que profundizar en una segunda fase el estudio, abarcando más zonas que la indicada, introduciendo por ejemplo el Paseo de Zubiaurre en la ecuación para tener en cuenta los previsibles cambios en la movilidad que el nuevo acceso y salida de Gros a la variante proporcionará (reducción de coches en la salida de Bidebieta por ejemplo). La conexión Gros-variante en sus dos sentidos debería ser estudiada en detalle haciendola compatible con la mejora del entorno y la adición del bidegorri que muy adecuadamente se plantean.

Hay una de dirección de bajada de intxaurre por un lado y otra de subida por otro lado. Yo dije que donde está la de subida que hagan las dos.

La propuesta que he leído me parece muy interesante.

Sería indispensable incorporar en esta propuesta la unión del frontón de Ategorrieta y el gaztetxe a la plaza. Actualmente están separados por un muro que genera un callejón (punto negro). En este frontón, se juega anualmente una liga de pelota. Además existe una bolera antigua.

Espero que se consiga llevar a cabo ya que redundará en una mejora de la calidad de vida de los vecinos del barrio

El proyecto es ambicioso, nos hace soñar.. pero es una de las entradas y salidas principales de Donosti.. con la amenaza de la variante que quieren construir en Marrutxipi.. Por otra parte, tal vez no estaría mal ampliar el proyecto hasta Cocheras, teniendo en cuenta el paseo zubiaurre, donde queda pendiente parte del soterramiento de las vías del tren. Esta zona es un desahogo para el tráfico que circula en Ategorrieta, muchos taxistas y buses pasan por ahí como alternativa.. Los vecinos de esta zona llevamos años pidiendo badenes para reducir la velocidad de los vehículos, arreglar la acera que es realmente muy estrecha y en tramos, muy muy deteriorada.. pero no hay manera, no atienden a nuestras peticiones. Mucha suerte con este gran reto!

creo que es un barrio al que le puede su situación y por tanto la influencia del tráfico

Recuperar espacio público para peatones y ciclistas con bidegorris seguros y segregados

Que los edificios viejos se rehabiliten o se construya nuevos. Que haya una continuidad del barrio y que aporte sensación de seguridad al viandante. No perder las conexiones en coche

Una chapuza .Todo cemento ,lo poco verde que tenemos edificios en beneficio de quien?

intentaría minimizar el tráfico y proteger también toda la calle no solo esta rotonda sino desde dicha rotonda hacia Gros, ya que hay mucho tráfico y ninguna berrera física para proteger a la cantidad de peatones que circulan por esa calle

La propuesta me parece muy buena pero habría que tener en cuenta la resolución de los tráficos rodados actuales (entre otros circulación de coches y autobuses privados que dan "servicio" a las zonas escolares, incluidos la Ikastola Zurriola y el colegio de Jesuitas) y las amenazas de un futuro inmediato: La diputación acaba de realizar un proyecto de trazado para la conexión de la variante con Ategorrieta y tiene la intención de licitar las obras este año. Si se realiza esta obra, Ategorrieta va a convertirse en uno de los nudos de tráfico viario más importantes de entrada y salida de la variante de Donostia, con lo que ello implica en las afecciones a las relaciones peatonales entre todos los equipamientos existentes. Estamos a tiempo de parar la ejecución y solicitar una reflexión en profundidad al Ayuntamiento de Donostia, aunque este dice que al ser una prouesta Foral no puede incidir en la misma. Por otro lado, en breve se va a poner en marcha la revisión del Plan General de Donostia y creo que en dicho documento (no la Diputación) se deben hacer las reflexiones-debates de los accesos rodados a la ciudad. Creo que esta propuesta puede servir de base para lanzar un debate ciudadano entorno al futuro de la movilidad en Ategorrieta y alrededores.

Muy de acuerdo con la solución. Creo que además desde una perspectiva de género es una propuesta muy adecuada

al ser una de las principales arterias veo difícil la disminución del tráfico. ¿Soterrarlo? Existen en los alrededores varios servicios que atienden a colectivos en exclusión social, en grado severo de exclusión. Habría que tener esto en cuenta en cualquier plan urbanístico...

Aunque es repetir, la sensación que me transmite este proyecto es de amabilidad hacia la persona que no va en coche. Y se agradece infinito